

GETARIA / Angel Lertxundi eta Harkaitz Cano Literatur Tailerrak aurten izango dituen irakasleak

DV. Urriaren 31ean itxiko da izena emateko epea Udalak antolatutako Literatur Lantegian, hau literaturan afizioa duten 16 urtetik gorakoei zuzendua dagoelarik, aurten bi idazle ezagun izanik irakasle gisa, biak ere literaturan puntako izenak: Angel Lertxundi eta Harkaitz Cano.

Tailerrak 13 saio izango ditu guztira, 60 euroko prezioan, saio guztiak (salbuezpenak salbu) larunbatetan izanik liburutegian, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian.

Lehen hiru saioak azaroaren 8an eta 22an, eta abenduaren 13an izango dira, Angel Lertxundi idazlearekin. Hurrengo hamar saioak, berriz, urtarriletik martxora bitartean eskainiko dira, Harkaitz Canoren idazlearen eskutik.

Literatur Tailer honetan parte hartu nahi dutenek Udaletxean bertan egin dezakete izen ematea, edo nahiago izanez gero Udalaren www.getaria.net web orrian, urriaren 31a baino lehen. Informazio gehiago Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943896024 telefono zenbakira deituz.